

JARDUNALDI BARNERATZAILEA PILOTAN

Olasagasti Ibargoién, Jurgi*

*Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

Harremanetarako helbide elektronikoa: jurgi.olasagasti@hotmail.com

Arloa: Gizarte kirola eta kirol dutako gizarte

Laburpena: Kirol egokituko modalitate batzuk kirol egokituko federazioaren baitan daude eta beste batzuk federazio konbentzionalen barne. Gizartean, inklusibidearen gaia lantzen eta eboluzionatzen ari den bezala, kirolean ere bidea egiten ari da. Baina inklusibidearen ikuspegi eta harremanen ulertzeak ez dira berdinak denontzat. Kasu honetan, euskal pilotan urritasunak ere aukera duela ikus genezake eta baita jarduerak elkarrekin egiteko ere. Urretxuko kirol egun batean kokatua, adimen urritasuna dutenak, urritasun fisikoak dutenak eta urritasunik gabeko pilotazaleak pilotako jai egun batean elkarrekin parte hartzea da asmoa. Erakutsiz, mugarik ez dagoela elkarbizitzan ezta kirol jardueretan ere.

Gako-hitzak: Inklusioa, euskal pilota, dibertsitate funtzionala.

Sarrera

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak (GKEF) hainbat kirol modalitate hartzen ditu bere barne, federazio konbentzionalen barnean ez daudelako. Horrek esan nahi du, kirol modalitate bakoitzean urritasun mota ezberdinak dituztenek parte hartu ahal dezaketela. Beraz, urritasun ezberdinak dituztenentzako kirol modalitate bera landu daiteke eta honen adibidea da euskal pilota. Dena den, GKEFren helburua, kirola modu barneratzailean egitea da. Baina inklusioaz hitz egitean zertaz ari gara?

Gipuzkoan Kirol Egokitua hazten ari da azken urteetan. Urritasuna duten pertsonen kirol praktika egin dezaketela geroz eta zabalduago dago, baina badira oraindik pertsona batzuk mugak jartzen dizkietenak bere buruari eta beste batzuk mugatuak direnak besteengatik kirola egiterako orduan.

Euskal Herrian pilotaren praktika oso zabaldua dago, baina praktika hori urritasuna duten pertsonen gaitasun ezberdinetara moldatzea izan da helburua 2004 urte ingurutik. Izaten diren muga horiek gaindituz, gaur egun, adimen urritasuna duten eta urritasun fisikoak duten pertsonen ere jokatzeko dute euskal pilotan. Gipuzkoan dena, 22 kirolari adimen urritasuna dutenak eta 12 gorpildun aulkiko paletan aritzen direnak, non horietatik 9 urritasun fisikoak duten kirolariak diren eta 3 urritasunik gabekoak. Jokalari guzti hauek geografikoki Gipuzkoako iparraldean kokatzen dira, Usurbil, Errenteria, Irun, Zarautz eta Orio.

Baina badira herri ezberdinak kirol egokituaren alde lan egiten dutenak urtez-urte eta horietako bat Urretxu da. Urretxuko udalak, Eiluz asoziazioa eta Dordoka kirol elkartearekin batera, herriko plazan urtero ekintza eta jolas ezberdinak antolatzen ditu hainbat asoziazio eta elkarteekin kirol praktika ezberdinak herritar guztien artean

praktikatzeko. Aurtengoan, euskal pilotaren inguruan egin nahi zuten jardunaldia, kirol honetan jokatzeko aukera guztientzat izanik.

Beraz, pilotaren jardunaldi irekia antolatu nahi zen helburu ezberdinak lortzeko asmoz. Lehendabizikoa, urritasuna duten pertsonen kirol praktika bultzatzea. Bigarrena, pilotan jokatzeko modu ezberdinak daudela erakustea. Hirugarrena, pilotaren inguruan jardunaldi parte hartzaile irekia eta barneratzailea izatea. Laugarrena, Urretxuko biztanleek urritasunari buruz dituzten aurre iritziak bideratzea eta ikuspegia zabaltzea.

Partehartzaile motak eta kopurua

Pilotaren egun hau, irekia izan zen nahi zuenak gerturatzeko eta azkenean frontoian pilotan jolasten aritu ginenak 28 izan ginen. Horietatik 4 urritasun fisikoa dutenak, 11 adimen urritasuna dutenak eta 13 urritasunik gabekoak. Urritasunik gabekoen artean aipatzekoak, pilotan profesionala izan den Aritz Lasa eta gaur egun profesionala den Xabi Erostarbe. Aipatzekoa tamalez, guzti hauetatik 4 izan zirela bakarrik emakumezkoak, 2 pilotariak eta 2 jendartetik frontoira jaitsi eta jolastera animatu zirenak.

Instalazioak

Pilotaren jardunaldi irekia, Urretxuko Ederrena pilotalekuan izan zen. Pilotaleku estalia, ezker hormakoa eta hamaika koadrokoa. Kontra-kantxa zabala eta nahikoa eserleku ikusleentzako. Aldagelak bertan dituenak nahiz eta egokitutakoak ez izan. Hori moldatzeko, aulki gogor bat eta dutxetako aulki egokitua ekarri zituzten. Pilotalekurako sarbidea laua da, beraz irisgarria. Materialak eta gurpildun aulkian dauden pertsonentzako alboan dagoen aparkalekua erreserbatuta iristeko erraza izan dadin.

Erakunde parte-hartzaileak

Jardunaldiaren antolatzaileak eta babesleak Urretxuko udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eiluz Urola Garaiko Gutxitu Fisikoak, Dordoka Kirol Elkarte, GKEF eta Goierri Kirol Elkarte izan ziren.

Hauetaz aparte, jardunaldian parte hartu zuten urritasuna duten pilotariak, Mindara asoziazioa, Zarautz Kirol Elkarte, Ramuntxo trinkete elkarte eta Pagazpe pilota elkartekoak izan ziren.

Giza baliabideak

Honelako jardunaldi bat aurrera eramateko, hiru momentu ezberdin bereiz ditzakegu. Aurretikoa, jardunaldia bera eta ondorengoa. Aurretik jardunaldia antolatzeko izan diren giza baliabideak udaletxeko gizarte zerbitzuetako zinegotzia eta kirol teknikaria izan ziren. Hauek ideia proposatzeko edo aurkezteko eta babes emateko beharrezkoak dira. Hauekin batera, honelako ekintzak mugitzeko asoziazio ezberdinetako boluntarioak eta jardunaldi antolatu dezakeen aditu bat behintzat, oraingoan GKEF-ko kirol teknikari bat. Jardunaldian zehar, pilotalekuan bi dinamizatzaile izan ziren. Horietako batek diademazko mikrofonoa izanik, speaker lanak egin zituen. Horretarako, musika eta soinu aditua den norbait beharrezkoa da. Goizean jokatu ziren erakustaldiko partidetarako,

markagailuan zegoen pertsona bat ere izan zen, kasu honetan jolasten aritu zen gazte bat. Pilotalekuan hamaiketako antolatu zuten pertsonak behar ziren eta azkenik, honelako jardunaldi baten ostean bazkari eder bat antolatuko zuten pertsonak ere behar ziren. Jardunaldiaren ondorenerako, egindako ekitaldia ezagutzera emateko kazetariak ere izan ziren bertan eta baita argazkilariak ere.

Material baliabideak

Jardunaldiaren aurretik ezagutzera eramateko kartelak eta prentsako berria erabili ziren. Jardunaldian erabili ziren material baliabideak jokatzeko paletak eta 12 pilota presio gabekoak edo “eskoletarakoak” deitzen zaiena. Jolas ezberdinak egiteko 4 peto eta pintoreek erabiltzen duten papera frontoiko paretan markak egiteko. Baita jendeak gurpildun aulkietan esperientzia frogatzeko kiroleko 7 gurpildun aulki.

Esperientziaren deskribapena

Jardunaldia 3 zatitan banatu zen. Lehen zatian, guztientzako irekiak ziren beroketa, jolas eta ariketak izan ziren. Pala eskuan izan gabe beroketa korrika, harrapaketa jolasa (gurpildun aulkikoak ez zuten parte hartu) eta txokotarako jolasa eskuz (gurpildun aulkikoak ez zuten parte hartu), ondoren palarekin izan ziren beroketa, punteria jolasa eta txokotarako jolasa. Bigarren zatian gurpildun aulkiko bi pilotarik Aritz Lasari erronka bota zioten, azken hau zutik. Ondoren, Xabi Erostarberi ere beste gurpildun aulkiko bi pilotarik erronka bera bota zioten. Eta erronkekin bukatzeko, ikusle artean zen emakumezko batek adimen urritasuna duten bi emakumeei bota zien erronka. Hirugarren zatian, hasteko hirukote ezberdinak osatu genituen guztien artean eta partiduak jokatu ziren bi biren aurka, tanto bakoitzeko jokalarien arteko aldaketak eginez. Abisatu genituen denak, gurpildun aulkian dauden jokalariek 2 bote dituztela jokatzeko. Azkenik, binaka beraiek nahi zuten bezala jarrita, 5 tantotarako partiduak jokatu zituzten denek denen aurka. Frontoiarenean frontisean eta errebotean batera jokatuz momentu berean 8 pilotazale partidu bakoitzeko bikote guztiak aldatuz. Azkenean, talde argazkia atera eta aldageletatik pasa ostean bazkari eder batekin bukatu genuen jardunaldia.

Balorazioa eta ondorioak

Jardunaldiari buruzko balorazio oso positiboa izan zen. Jende askok parte hartu zuen, prentsan oihartzuna izan zuen eta pilotaz disfrutatu genuen. Esanenezake egunak zituen helburuak bete egin zirela. Pilotan jokatzeko jende asko izan genuen momentu batean, baina ariketa-jolasei aldaerak sartuz parte hartze nahiko dinamikoa izatea lortu genuen. Gurpildun aulkioek bi jolasetan ez zuten parte hartu. Hainbeste jende izanik, gurpildun aulkietako jokalariekin hitz egin ostean erabaki genuen segurtasunagatik parte ez hartzea harrapaketa jolasa eta eskuz txokotarako jolasetan.

Ondoriozta daiteke euskal pilotan aritzeko aukerak badirela eta elkarrekin berdintasunean inongo mugarik gabe jokatzeko aukerak badirela. Hori modu inklusibo batean kirola lantzea dela esanenezake. Parte hartzeko aukerak berdina izanik urritasuna izateagatik baztertu gabe.

Egun hau borobilduko luke, Goierriko eskualdean adimen urritasuna edo gurpildun aulkiko taldeak sortuko balira pilota elkartetan barne hartuz.

Gehiago ezagutzeko estekak

Prensa aurreko aurkezpena

<http://www.diariovasco.com/alto-urola/urretxu/201609/23/pelota-protagonista-integral-20160923002701-v.html>

Jardunaldiaren berri ematen dituzten helbideak

<http://www.diariovasco.com/alto-urola/urretxu/201609/27/deporte-adaptado-alcance-todo-20160927001601-v.html>

<http://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20160928/deporte-adaptado-herramienta-de-salud-e-integracion>

<http://www.naiz.eus/eu/mediateca/video/kirol-egokitua-integraziorako-tresna-aparta>